BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4142

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrendetako aldaketek zein langile eragiten duten zehazteko dena.

2009ko otsailaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Berritzeguneen egitura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen duen otsailaren 17ko 40/2009 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horren bidez, zenbait aldaketa egin ziren hezkuntzan laguntzeko zerbitzu horien egituran.

Aldaketa horiek guztiak Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrenda berrian gauzatu ziren. Zerrenda hori otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuaren bidez onartu zen; dekretu horrek prozesu bat abian jarri zuen, aldaketa horiek otsailaren 17ko 42/2009 Dekretuan jasotako prozeduraren bidez eragindako langileei zegokiena.

2009ko martxoaren 16ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak jakinarazi zuen zein langile eragin zuten otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuak Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrendan egindako aldaketek. Jakinarazi zuen, orobat, nortzuk geratu ziren lanposturik gabe, otsailaren 13ko 25/2001 Dekretuan jasotako aurreikuspenak aplikatuta (dekretu hori abenduaren 26ko 368/2001 Dekretuak aldatu zuen).

Geroago, uztailaren 24ko 149/2012 Dekretu bidez, bigarren aldiz aldatu da Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzeko dekretua. Aipatu Dekretua 2012ko abuztuaren 3an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta biharamunetik izan ditu ondorioak.

Horrela bada, aldaketa honek eragindako pertsonak zehaztu behar dira berriz ere. Prozedura hori Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrendetako aldaketek zein langile eragiten duten zehazteko irizpideak finkatu eta zentroetan berriro atxikitzeko prozesua arautzen duen otsailaren 17ko 42/2009 Dekretuaren arabera ebatzi behar da.

Aipatu Dekretuak 13. artikuluan arautzen du Berritzeguneetako behin betiko lanpostuen galera. Horrela, Dekretu honetan araututako prozesuaren bidez lanposturik lortzen ez duten pertsonak Berritzegunetik kanpo geratuko dira. Berritzegunetik kanpo geratutako pertsonek azken behin betiko destinoa izan zuten Berritzegunearekiko erreferentzia izango dute, balizko destino-berreskuratzeari dagokionerako bakarrik. Erreferentzia horri eutsiko zaio beste behin betiko destinoren bat lortzen duten arte (irakaskuntzan edo Berritzeguneren batean).

Pertsona horiek behin betikotasuna berreskuratuko dute azken behin betiko destinoaren ezaugarri berdinak dituzten plaza libreak badaude. Berreskuratze hori automatikoa eta derrigorrezkoa izango da Halakorik ez badago, hautazkoa izango da bestelako plaza bati berriro atxikitzea.

Aipatutako lanpostu-zerrendako aldaketak eta eragindako langileen administrazio-egoera aztertuta, gorago aipatutako otsailaren 17ko 42/2009 Dekretuan zehaztutakoa kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Uztailaren 24ko Dekretu bidez Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrendetako aldaketek zein langile eragiten duten zehazteko prozeduraren emaitzak argitaratzea. Honako aldaketa hau egin da:

G01 Berritzegunea

NAN	Izen-abizenak	Lanpostua	HE-DD
00380847	Santos Cañas, Maria Teresa	ETAPAko A: BIGA, ZN-TK	2-B

Bigarrena.– Ebazpen honi dagokionez aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2009ko martxoaren 16ko Ebazpena, otsailaren 17ko 41/2009 Dekretu bidez Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu-zerrendetako aldaketek zein langile eragiten duten zehazteko prozedurako behin betiko zerrenda argitaratzeko dena.

Hirugarrena.– Ebazpen honek 2012ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 30a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.